



## GOMENDIOAK KIRURGIA OKULOPLASTIKOA EGIN ONDORAKO

- Operatutako alderdian apositua jarri badizute, lehen 24 orduetan ez da komeni hori altxatzea edo inolako tratamendurik egitea operatutako begian. Apositua kentzeko kontsultarik eman ez badizute, kirurgia egin eta 24 ordura, kendu zerorrek apositua kontu handiz, serum fisiologikoan bustita.
- Bazkaltzeko orduan (etxean), operatu eta egun berean, hasi medikazioa hartzen, beti bezala, salbu eta antikoagulatzaileak eta antiagregatzaile plaketarioak (SINTROM<sup>®</sup>, ADIRO, ASPIRINA<sup>®</sup>, PLAVIS<sup>®</sup>); horietarako, jarraitu kontsultan emandako aginduei. Diabeteserako pastillak hartzen badituzu, hartu itzazu beti hartzen dituzun bezala.
- Betiko dieta egin dezakezu, betiere bestelako jarraibiderik ematen ez badizugu.
- Mina sentitzen baduzu, hartu medikazio hau:  
.....  
.....
- Jarri hotza operatutako alderdian (ilar izoztuak eskularru batean), hamabost minutuz, 90 minututik behin lehen egunean.
- Baldin eta **honako sintoma hauetakoren bat nabaritzen baduzu**, 8etatik 15:00etara arteko ordutegian Oftalmologiako kontsultako harrerara joan beharko zara, eta Santiagoko larrialdietako zerbitzura, berriz, ordutegi horretatik kanpo:
  - Etengabeko odoljarria.
  - Agindutako medikazioarekin kontrolatu ezin den mina.

**Lehen egunean**, hau komeni da:

- Atsedean hartzea, ahaleginik ez egitea, baina telebista ikus dezakezu, baita irakurri ere.
- Ez da beharrezkoa ohean egotea, betiere hori agindu ezean.
- Ez igurtzi begia.
- Ez altxa zamarik.
- Saiatu ez tul gogorra kontrolatzen.
- Ez ezazu lo egin operatutako begiaren aldearen gainean lehen astean.

**Interbentzioan DAKRIOZISTORRINOSTOMIA egin badizute**

- Garrantzitsua da LO EZ EGITEA OPERATUTAKO BEGIAREN ALDEAREN GAINEAN LEHEN ASTEAN
- Egizu lo bi burkorekin lehen egunetan.
- Ez egin doministikurik ahoa itxita.